

INSTRUCCIÓN Nº 2 /2013

**DE: DIRECCIÓN DE RECURSOS HUMANOS
DE OSAKIDETZA/SERVICIO VASCO DE SALUD**

**A: DIRECCIONES DE RECURSOS HUMANOS
ORGANIZACIONES DE SERVICIOS**

**ASUNTO: PRÓRROGA PROVISIONAL DE LA REGULACIÓN SOBRE
JORNADA Y CALENDARIOS ANUALES.-**

El Título III del vigente Acuerdo de regulación de las condiciones de trabajo del personal de Osakidetza-Servicio vasco de salud recoge la regulación en materia de “Jornada ordinaria de trabajo, Jornada complementaria, Descanso diario, Descanso semanal, Descanso alternativo y Vacaciones”.

Por su parte, el artículo 50 viene a establecer la regulación referida a la licencia por asuntos particulares.

Esta licencia establecía, conforme lo dispuesto en escrito de fecha 26 de abril de esta Dirección, el derecho al disfrute de seis días laborables, con límite máximo de 45 horas, o del tiempo que en proporción corresponda al tiempo de servicio transcurrido dentro del año natural, así como los días de libre disposición por antigüedad.

Conforme a las disposiciones contenidas en dichas normas, el Acuerdo establece la regulación referida a la fijación e implantación de las carteleras de trabajo en las organizaciones de servicios que integran la red del Ente Público de derecho privado Osakidetza-Servicio vasco de salud.

El Real Decreto-ley 20/2012, de 13 de julio, vino a establecer una serie de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad.

Entre las medidas fijadas resulta la supresión de los días por cumplimiento de trienios.

Asimismo, los días por asuntos particulares han sido limitados en su duración, reduciéndose a la mitad.

Finalmente, debe de tenerse en cuenta la necesidad de que se negocie en las correspondientes mesas de negociación la implantación de la jornada anual que resulte de aplicación para el año 2013.

Por ello, y en tanto no se produzca dicha negociación, se deben de dictar las instrucciones que posibiliten la continuidad de las carteleras de trabajo existentes hasta la fecha, si bien adaptadas a las medidas implantadas.

En este sentido, se viene a seguir el criterio que se ha fijado desde el Departamento de Administración Pública y Justicia, mediante Resolución de 9 de enero de 2013 del Director de Relaciones Laborales por la que se prorroga la vigencia de la Circular de 24 de febrero de 2012, sobre Jornadas y horarios del personal funcionario y laboral de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2012.

En su virtud, se viene a dictar la presente

INSTRUCCIÓN:

1.- Con efectos del 1 de enero de 2013, las organizaciones de servicios deberán proceder a prorrogar las carteleras de trabajo específicas de cada correspondiente Unidad, garantizando la adecuada cobertura asistencial.

2.- Ello supone el mantenimiento temporal de las jornadas, horarios y calendarios vigentes hasta la fecha.

3.- No obstante, durante la vigencia de dicha prórroga, no se autorizarán días de libre disposición por antigüedad, y los días de licencia por asuntos particulares no podrán superar los tres días laborables, con un límite de 22 horas y 30 minutos, o la duración proporcional que corresponda al personal en servicio activo por tiempo inferior al año o con reducción de jornada.

4.- Las medidas establecidas tienen carácter transitorio, y serán de aplicación hasta tanto no se dicte una nueva Instrucción que regule la jornada y horarios del personal sujeto al ámbito de aplicación del Acuerdo de regulación de condiciones de trabajo de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de enero de 2013



GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORADO DE RECURSOS HUMANOS

Fdo.: Juana Fernández Refoyo

Directora de Recursos Humanos

2013/2 JARRAIBIDEA

**NORK: OSAKIDETZA/EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA
BALIABIDEETAKO ZUZENDARITZA****NORI: ZERBITZU ERAKUNDEETAKO GIZA
BALIABIDEETAKO ZUZENDARITZAK****GAIA: URTEKO LANALDIARI ETA EGUTEGIARI BURUZKO ARAUEN
BEHIN-BEHINEKO LUZAPENA**

Indarrean dagoen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioko III. Tituluak ondokoa arautzen du: "Ohiko lanaldia, Lanaldi osagarria, Eguneko atsedenaldia, Asteko atsedenaldia, Atsedenaldi alternatiboak eta oporrak".

Bestalde, 50. artikuluak norberaren eginkizunetarako lizentzia arautzen du.

Zuzendaritza honek apirilaren 26an egindako idatziaren arabera, lizentzia horrek ezartzen zuen langileek sei lanegun hartzeko eskubidea izango zutela 45 orduko mugarekin, gehienez ere; edo urte naturalean lanean emandako denborari dagokiona. Horrekin batera antzinatasunagatiko egunak hartzeko eskubidea ere ezartzen zuen.

Aipatutako arauak xedatutakoari jarraiki, Akordioak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Sareak barne hartzen dituen Zerbitzu Erakundeetako lan-karteldegiak finkatzeko eta ezartzeko arauak ezartzen ditu.

Uztailaren 13ko 20/2012 Errege-Dekretuak, aurrekontu-egonkortasuna eta lehiakortasun-sustapena bermatzeko zenbait neurri ezarri zituen.

Hartutako neurrien artean hirurtekoak betetzeagatik har daitezkeen egunak kendu zituen.

Era berean, norberaren eginkizunetarako egunen iraupena mugatu zen, eta, ondorioz, erdira murritztu dira.

Azkenik, dagozkion negoziazio-mahaietan, 2013an aplikatu behar den urteko lanalдиaren ezarprena negoziatzeko beharra hartu behar da kontuan

OSASUN ETA KONSUMO
SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO

Hori dela-eta, aipatutako negoziazioa egiten ez den bitartean, orain arte dauden lan-karteldegiaren iraupena ahalbideratzen duten jarraibideak eman behar dira, beti ere kontuan hartuta lan-karteldegia ezarritako neurrietara egokitu behar direla.


Horrenbestez, Herri Administrazio eta Justizia Sailak Lan-harremanetarako Zuzendariaren 2013ko urtarrilaren 9ko Ebazpenaren bitarte finkatu duen irizpideari jarraituko zaio. Ebazpen horren bitarte, 2012rako EAEko Administrazio Orokorreko lan-kontratuko pertsonalaren eta funtzionarioen lanaldia eta ordutegia zehazten dituen 2012ko otsailaren 24ko Zirkularren indarraldia luzatzen da.

Horiek horrela, ondoko jarraibidea ematen da:

JARRAIBIDEA:

- 1.- 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera zerbitzu erakundeek unitate bakoitzaren lan-karteldegi espezifikoak luzatu beharko dituzte eta asistentzia egokia bermatu.
- 2.- Horrek esan nahi du orain arte indarrean dauden lanaldi, ordutegi eta egutegiekin jarraitu behar dela aldi batean.
- 3.- Nolanahi ere, luzapena indarrean dagoen bitartean, ez dira baimenduko antzinatasunagatiko egun libreak; norberaren eginkizunetarako egunei dagokienez, ez dira izango hiru lanegun baino gehiago, 22 ordu eta 30 minutuko muga dutela, edo lanaldi murriztua edo urtebetetik beherako lana duen pertsonalari dagokion iraupen proportzionala baino gehiago.
- 4.- Ezarritako neurriak aldi baterakoak dira, eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren menpeko pertsonalaren lanaldia eta ordutegiak arautzen dituen Jarraibide berria xedatzen ez den bitartean bete beharko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko urtarrilaren 11an



Osakidetza

GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: Juana Fernández Refoyo
Giza Baliabideetako Zuzendaria